

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko ekainaren 5a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lekunberri • Gaur zabalduko da Plazaolako turismo bulego berria.

Jose Etxegoien • «Fazeriak Erdi Aroan sortutako hitzarmenak ziren».

Egindako lanaren ordaina jasoz



• LUIS AZAN •

Datorren ostiralean, hilak 12, Euskalerrira Irratiak urtero ematen duen Larreko saria jasoko du Nafarroa Behereko Irulegi Irratiak. Euskara komunikazio tresna izatea lortu izanaren ordaina da saria. Finean, hamasei urteotan egindako lan eskergaren ordaina.



Lekunberri ●

Gaur zabalduko da 'Ibiltarien abaroa'

Plazaola trenaren geltokia izan zen etxean irekiko da turismo etxea

Plazaola inguruan diharduten turismo zerbitzu guztiak bilduko dira geltoki zaharrean. Bestalde, kanpotik etorritako bisitariei argibideak eskainiko zaizkie, aukera guztiak aprobetxa ditzaten.



Egoitza berria gaur arratsaldean zabalduko dute.

● MIKEL SAIZ

GARAI BATEAN TRENAK IRTETEN ziren leku beretik abiatuko dira, aurrerantzean, Lekunberri-raino gerturatutako turista gehienak, zeren eta geltoki zaharra, gaurtik aurrera, *Ibiltarien abaroa* izango baita. Plazaola Partzuergo Turistikoaren gerenteak, Maitena Ezkurtarik, esandakoaren arabera, «Larraun, Araitz-Betelu, Ultzama eta Leitzaran biltzen dituen ibilbide turistikoaren abiapuntua izango da geltoki zaharra. Ibilbide hori hasi aurretik jakin beharreko guztiak eskainiko zaizkio bisitariari. Gainera, orain arte jendeak ez du turismo bulegora joateko ohitura handirik izan, baina orain, eraikuntza berrian, erakar-garriagoa izango da».

Ibiltarien abaroa bakarria izango da, baina bi eraikin bilduko ditu. Alde batetik, lehen trenen kotxera izandakoa, orain biltegi bezala ezagutuko da, eta bertan

emango zaie harrera bisitariei. Biltegian eskainiko da, era berean, inguruko paisaiak, kultur ekitaldiak eta beste zerbitzu guztiak biltzen dituen diaporama. Bestalde, erakusketak ere antolatuko dira, noizean behin. Ekainean, esaterako, *Plazaolaren elementuak* izenekoa izango da ikusgai. Azeptian eta Castejonon dauden tren museoetatik ekarritakoak ikusi ahal izango dira.

Biltegiaren ondo-ondoan dago geltokia izandakoa. Bertako behe solairuan, sarrera izango denean, turismo bulegoa kokatuko da. Baina ez da kokalekua bulego honen ezagutuko duen aldaketa bakarra. Izan ere, orain arte, Nafa-

roako Gobernuak eta Lekunberriko Udalak kudeatzen zuten, elkarrekin, bulegoa, baina aurrerantzean Gobernuaren esku izango da soilik. Solairu berean, esku-langileek egindako gauzez osaturiko dendatxoak izango da. Eskailerak igota, lehenengo solairuan, gainerako bulegoak izango dira: Plazaola Partzuergoarena, Garalur Garapenerako Agentziera eta Lanbide Orientazio Zerbitzuarena. Azkenik, ganbaran zer jarriko den erabaki gabe dago oraindik.

1953an egin zuen Plazaolako trenak bere azken bidaia. Geltokia, geroztik hutsik egona, aurrerantzean jendez beteko da berri-

ro. Horrenbestean, Plazaola Partzuergo Turistikoaren asmo nagusietako bat gauzatuko da. Duela bost urte sortu zen egitasmoa da *Ibiltarien Abaroa*. Trenbidea berreskuratzekotan lehenik eta behin haren inguruko eraikinak konpondu behar zirela argi zeukaten Partzuergoek. Izan ere, batzuk erortzeaz zeuden, eta beste batzuek, berriz, jabe pribatuak zizuten ordurako. Berreskuratzeko horretarako, duela bi urte egin zituen Nafarroako Gobernuak lur eta etxe desjabetzeak. Gaur arratsaldean inauguratuko da *Ibiltarien Abaroa*.

→ Urko Aristi

Sakana ●

Bihar egingen da Literatur eta Komiki lehiaketako sari banaketa

SAKANAKO LITERATUR ETA KOMIKI lehiaketako saridunek bihar eguerdiko 12:00etan jasoko dute saria Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan. Sakanako Euskara Zerbitzuak urtero antolatzen duen txapelketa partaidetza handia izan da aurtengoa. Guztira, eskualdeko 150 haurrek parte hartu dute aurtengo ekitaldian. Aurtengo saridunak ondoko hauek dira: Lehen Hezkuntzako aurreneko saria Joseba Ollo Iturralde irurtzundarrak eraman du, eta bigarrena Mikel Aldasoro etxarriarrak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) saritutakoak, berriz, Iker Bueno eta Eneko Zabalo dira, altasuarrak biak; lehenengo saria banatu egin beharko dute. Bigarrena, berriz, Patxi Goikoetxeak irabazi du. Literatur sariak dagokienez, Etxarriko ikasleek eskura joan dira lehen eta bigarren sariak: Belen Aranarendako lehena, eta Naiara Ijurkorendako bigarrena, hain zuzen ere. DBHn, berriz, Alazne Alvaro Igoak eta Arantza Igoa Errok jaso dituzte lehen eta bigarren saria. Ikasketa Er-tainetako saria, bestalde, Xabier Reparaz Extramienak hartuko du biharko ekitaldian.

Sariak ez dira horretan geldituko, Sakanako Euskara Zerbitzuak argitaratu egingen baititu lan sarituak.

→ Amaia Amilibia

metropoli forala

FELIPE RIUS



Sua dena inguratzen ari zen, eta kotxera iristen beranduegi izanen zela pentsatu zuen. Ez zekien nora joan, irratietan dena berdintsu zegoela esaten ari ziren, New Yorketik Himalaiara, baina gero eta zailagoa zen irratiren bat harrapatzea; bietako bat, edo bere kotxeko aparailua izorratuta zegoen edo emisora gehienak suntsituta zeuden harrez gero. Dena bapatean hasia zen. Esmatu zenean izugarrizko beroa zegoen, ohikoa baino askoz ere bero zakarragoa, eta momentu batez udan holakoak gertatzea normala iruditu bazitzaion ere, leihotik sartzen argitasun bereziak laster azaldu zion horrek guztiak ez zuela zerikusirik eguraldiarekin. Mundua sutan dago, entzun zuen irratia piztu eta berehala. Esataria bere betiko doinu profesionalaz hitz egiten ari zen, kazetari alu horiek ez zuten sekula ikasiko berriei emozio piska bat ematen; eskerrak futbola erretransmititzen

Azken zalantzak

zutenak oso bestelakoak ziren. Dutxa bat hartu behar zuela bururatu zitzaion lehenbizi, izerditan blai zegoen, zikin sentitzen zen, eta munduaren bukaera iristear baldin bazegoen hobe zen apainduta egotea, hala irakatsi zioten behin behin, edozein egoeratan formak gorde behar direla. Txorrota ireki zuen, baina ez zen urik atera. Hodi guztiak txikituta egongo ziren, ama lurra labe garai erraldol bat baino ez zen eta. Egia aitortu behar bazuen, leihotik ikusten zuen ikus-kizunak bazuen edertasun puntu bat. Sutondoan garreri begira emandako gauzez oroitu zen eta Els Comediants taldearen joko piroteknikoak etorri zitzaizkion burura. Mundua azken finean Valentziakoak bezalako falla bat besterik ez zen, mundua falla handi bat eta bera babesik gabeko ninot itsusi bat. Zigarro bat piztu zuen, azkena, esan zion bere buruari ironia pitin batez. Kalera atera zen, jendea lasterka zihono noraeze-

an, denak, bazter batean negarrez ari zen ume txikia izan ezik. Gogoan oso gordeta zuen zerbait oroitarazi zion umearen negarrik, bakardadearenganako beldu-rra sentitu zuen lehenbiziko aldian. Absurdoa zen dena, zertarako balio zioten orain irakurritako liburu guztiak, zertarako urteetan osatutako bibliografia luzeak, zertarako jakinminak, zertarako zorionaren atzetik emandako pauso baldarrek. Negarrez hasi zen bera ere. Suak inguratutik zegoen eta ez zekien zergatik egiten zuen negar, pikutara zihono zibilizazio batengatik, hiltzen ari ziren guztiengatik, Marianengatik, lagunengatik, etxean utzitako gauzengatik edo bere buruagatik. Hondamendian ere ezin zituen zalantzak alde batera utzi, madarikazio bat zen. Azeleratu egin zuen, beharbada horrela bere dudu guztiak atzean geratuko zirelakoan, eta orduan, infernuaren erdian, hotzikara bortitiz batek astindu zizkion erraiak.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Iruzurra

Sekulán ez naiz kirolzalea izan. Bainan, gaztetan, niretzat mendizaletasuna ez zen kirol bat, gauza diferentea zen. Ukitu erlijioso bat zuela esango nuke. Zertarako bestela hainbeste arrisku, sofrimendu eta lan nekea? Deustarako. Mendigoizaleak alferreko lana egiten zuten, guztiz baliogabea. *Los Conquistadores de lo inútil* esaldiarekin maiteminduta nengoen. Mundu materialista honetatik aldentzen ziren aszetak ziren haiek eta Aita Salestarraren aretoan botatzen zituzten diapositibetan ikusten ahal genuenez aszetan itxura guztiak agertzen ziren. Gizaki zauritu, busti, izoztu, leher eginda zegoen hura maitagarria zen. Beraien patu makurra borondatezkoa zen! Naturak gurutzifikatu egiten zituen eta beraiek, hala eta guztiz ere!, naturarekin maitemindua zeudela azpimarratzen zuten eta hango mendietatik ekartzen zuten etekin guztia horixe zen: alferrekoa zela guztia.

Behin, esate baterako, Etxauriko aitzetara joan ginen eskalatzera bainan eguraldia okertu eta euri jasa izugarri bat bota zenez, autoa hartu eta Iruñeruntz bueltatu ginen. Errepidean motxila izugarri batekin oinez zihoran mendizale gixajo bat ikusi eta kotxea gelditu genuen. Igo motel-esan genion. Berak ezetz, eskertzen zuela bainan segitzeko. Mendizale famatua zen eta Himalayarako entrenamenduan zebilen. Kotxearen barruan goxogoxo geundenok ez genuen dudarik egiten. Benetako mendizalea bera zen. Gu artaldea ginen eta bera Dhauagiriko Katedralean egondako Aita.

Dhauagiril, oroitzen al zarete?. *El Dhaua* deitzen genion. Zirrargarria izan zen hura.

Gaur, aspaldiko espedizio hark sortutako zirraren arrastoekin, oraindik ere!, Dhauagiril buruz emandako berri bat irakurri dut. Niretzat behintzat penagarria. Ez da batere hunkigarria izan. Iruzurra da gai nagusia. Basamortura erretiratutako aszetak orain beste aszetan kontra egiten du. Txinatarrak salatzen ditu 7.940 metroko mendi bati 60 metro eransteagatik bere karreraren kaltean. Tontor homologagarri eta ez-homologagarrietaz ari da. Hamalau zortzimila zenbaki majikoaren inguruan sortutako lehiak mintzo da modu tematian. Profesional bat dugu aurrean. Jada ni ez naiz artalde eta bera ez da Aita ere.

• Bera •



• JON ABRIL

Gure Txokoako neskek, Ligako txapeladun

Gure Txokoako futbol taldeko neskek bigarren urtez jarraian lortu dute Gipuzkoako liga irabaztea. Azken aurreko jardunaldian erdietsi zuten titulua, eta larunbatean Berako Matxada futbol zelaian jokaturako partiduen aitzinetik kopa eta lore sorta bat jaso zuten. Sari banaketan Gure Txokoako dantzariak eta Zumaiako futbol taldeko neskek ongi etorria egin zieten. Larunbateko festari amaiera ezin hobea eman zioten, 2-0eko emaitzaz gailendu baitziren beratarrek. Partidua ikustera zein sari banaketara jende gutti hurbildu zen arren, zenbait musikari ere joan zen arratsaldea animatzera. Jose Luis Alzugaraiaren neskek bertze behin autonomia ligara igotzeko aukera izanen dute, baina diru arazoek, eta plantila estuak batez ere, zail jarriko dituzte gauzak. Hala ere, kontent egoteko arrazoi franko badute. Zorionak!

Bera
•
Altzateko bestak asteburuan

GAUR HASI ETA IGANDEA bitarte ospatuko dira Berako Alzate auzoko bestak. Arratsaldeko 8:00etan Eztegarra pilotalekuan jokatzeko ari den pilota-goxo txapelketako partiduekin hasiko da egitaraua. Ondotik Alzateko hiru ostaturak kontzertuak egonen dira. Arratseko 9:30etan Zizka ostaturak Jexuxmai & Noizbehinka taldea ariko da. Ordu bat beranduego Bidaxkan Ohar taldea ariko da, eta 11:30etan Jamila Kubako kantariaren txanda izanen da Pui ostaturak.

Larunbatean, eguerdiko 12:00etan altaxeroa botako da, eta buruhandiak eta erraldoiak ibiliko dira Alzaten. 4:30etan pilotagoxo txapelketako partiduak izanen dira, eta tenore berean haurrentzako jokoak izanen dira Alzateko plazan. Gauerdian Tapunto txaranga ariko da, eta zezen suzkoa aterako da.

Igandean, berriz, goizeko 10:00etan Berako I. herri lasterketa korrituko da Matzadan, Gure Txokoako elkarrekin antolatua. Goiz osoan zehar zaldi kontzentrazioa eginenda Alzaten, eta 2:00etan herri bazkaria eginen da. Arratsaldeko 7:00etan Gure Txokoako dantzarien txanda izanen da, eta bestari akabera emateko Kristina eta Amaia trikitilariak ariko dira plazan.

→ Jon Abril

Ilundain
•
Ingurugiroaren Nazioarteko Eguna ospatuko du gaur eta bihar Haraitz Berri Eskolak

INGURUGIROAREN NAZIOAREKO EGUNA ospatuko du gaur eta bihar Ilundain Haraitz Berri Etxalde Eskolak. Arangurengo Bailaran kokatzen den Haraitz Berri ikas-

tetxean naturarekin uztarturik diren ekintzak egiten direla aintzat hartuz, helburua bertara hurbiltzen diren ikasleei natura maiztasun eta errespetatzen erakustea da.

Ingurugiroaren Nazioarteko Egunerako eginkizun bereziak antolatu ditu Haraitz Berri Eskolak. Gaur, Nafarroan apaintzeko baliagarriak diren zuhaitzetaz mahaingurua izanen da 19:00etan. Bertan hartuko dute parte: Luis Miguel Garcia Bona, Bilogia doktoreak, Gorosti taldeko partaide batek, eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Saileko teknikari batek. Ondoren, etxaldea erakutsiko zaie bertarutakoei, eta eguna otorduarekin bukatuko dute.

Bihar berriz, naturari diosola egin eta gero, norberak emandako hamaiketako eginen dute. Hamaikak eta erdietan Nafarroa eta ingurugiroa izanen dute mintzagai Luis Miguel Garcia Bonak, Jose Carlos Irurtzun Lane talde ekologistako kideak eta Haritz Berriko ordezkari batek. Tarte horretan ere, gaztetxoentzako marrazki lehiaketa eta ingurugiroarekin uztartzen diren jokuak antolatu dira. Hiru ordu beranduego, txistor jatea izanen da, eta seieta txokolate beroa. Bestalde, gaur egin moduan, bihar ere etxaldea bisitatzeko aukera izanen dute harat hurbiltzen direnak 16:30etan.

→ Uxue Zabaleta



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Sendabelarrak barra-barra

Guaixe Sakanako hilabetekariak Laura Gurbindori egin dio elkarrizketa azken zenbakian, sendabelarren mundura hurbiltzeko asmoz. «Laura Gurbindo iruindarra arras ezaguna da Sakanan, sendabelarrak gustuko dituen jendearen artean bereziki, emakume honek azkeneko zazpi urteotan hainbat eta hainbat ikastaro eman baititu. Altsasun, Irurtzunen eta Olaztin ikastaroak ematen ibili da azken urte hauetan. Aurten, berriz, Etxarri-Aranatzen ari zaio 20 lagunez osaturiko *sorgin* taldeari irakasten. Gainera, Etxarrin, inoiz baino ikastaroz luzeagoa egiten ari dira. Zazpi hilabeteko ikas-

taroa, hain zuzen. 97ko udazkenean hasi ziren eta aurtengo ekainean bukatuko dute ikastaroa».

Guaixe-ko elkarrizketan sendabelarrak noiz hartu, nola erabili eta bestelako xehetasunak ezagutzera eman ditu Laura Gurbindok: «San Juan aldera hartu behar dira, loratu berri direnean indarrak gehien duten garaia delako. Ahal izanez gero ez dute bustiak egon behar, lehorrak badaude askoz hobe da eta. Landareak biltzerakoan ez izerditzeko hoberena saski bat erabiltzea da. Maitasunez hartzea ezinbestekoa da. Sendabelarrak gaixotasunei aurre

hartzeko erabiltzen dira, lehenik eta behin prebentzioa landu behar dugu eta. Gorputzaren defentsak aktibatuz eta odola garbitzeko oso egokiak dira, beraz, sendabelarrak, hortan oinarritzen baita medikuntza naturala».

Gurbindok azpimarratu legez, Sakanan oso lur aberatsa da sendabelarre dagokienez: «Irurtzundik Ziordia bitartean 200 sendabelar baino gehiago aurki ditzakezu. Eta Sakanan hazten ez diren landare gutxi batzuk hartzeko Urbasa beste aldera joatearekin nahikoa duzu, beraz, kilometro gutxi eginda behar dituzun adina sendabelar eskura ditzakezu».

Irulegi Irratia: eguneroko ginhahalean

Nafarroa Behereko irratia Larreko saria jasoko du euskara komunikazio tresna izateko egiten duen lanagatik

Euskararen zabalkundearen alde eta ohiko komunikazio tresna izateko egunero egiten duen ahaleginagatik Iruñerriko Euskalerria Irratiak urtero ematen duen Larreko saria jasoko du Nafarroa Behereko Irulegi Irratiak. Azken hamasei urteotan uhinetan zabaldu duten oihartzunaren opari gisa hartu dute irratikideek.

NAFARROA BEHEREKO HIRIBURUTIK, DONIBANE-Garazitik, entzuten da egunero-egunero Irulegi Irratiak ahotsa. Uhinetan barna eta mendi kaskoen gora-beherak traba bat baino gehiago jarri arren, hainbat etxetara iristen da 1982ko otsalean Irulegi herrian sortu zen irratia euskalduna. Urte bat lehenago Frantziar sozlistak boterera heldu zirean sortu zen irratia libreen mugimendu azkarraren segidan sortu zen Iparraldean Irulegi Irratia. «Beraz, ordu artio ametsa zen gauza bat errealtate bilakatzen ahal zen. Horik sortu ziren Iparraldean hiru euskal irratia proiektu eta guria Garazi eta Baigorriko kantona-menduko jende batzuek zuten montatu eta abiatu», gogoratu du Patxo Irigarai, Irulegi Irratiako esatarietako batek. Irratiaren proiektua hasi zuten orolimean geratu da Irulegi herriko Menta baserriko ganbaratik egin zuten lehen emisioa. Gero arditigira pasatu ziren. Ballabide gutxi edukiz zituzten arren, ilusioa eta euskaraz irratia bat erakitze nahierkin aurrera atera ziren. Irulegin 1989ra arte egon ziren eta arditigitik irratiko trasteak hartu eta Donibane-Garazira egin zuten salto.

Geroztik, Nafarroako Behereko hiriburuan dira, Merkatu estaliaren ezkerretara dagoen etxe bateko behealdean dute lekutu irratia egotea, Uharte-Garaziko eta Arnegiko bideen artean. Lekuko informazioa emateko tresna bat sortzea izanik helburua hasi ziren lanean. «Lekuko komunikazio tresna gisa euskarazko irratia bat behar zela ginen konturatuak. Ordura artio jakin behar da ez zela euskarazko bat ere. Radio France-Côte Basque irratian astean ordu erdi bat bazen, baina bestela ez zen deus. Beraz, ez zen dudarik euskarazko irratia baten sortzeko ideia berehala egin zela, helburuetako bat zen lekuko jendeari erakustea euskararen balioa eta horrela ofizialtasun bat emaita euskarari irratia bidez. Azkenean entzuten ahal baitzen irratia bidez euskaraz», azpimarratu du Patxo Irigarai.



Pantxo Irigarai:

«Ez da dudarik jadanik euskara mantentzeko papera pixka bat bete dugula. Euskal irratia izan ez balira, oraino errekaratzen ari den baino lasterrago errekaratuko zen. Irratiak mantendu dute hori. Baina gero ikusten dugu hamar urtetik honat zer diferentzia den. Gazte batzuk doi-doi aritzen dira euskaraz eta ez dute axolarik. Horregatik, ezezkorra naiz»

ametsa gauzaiten

Euskara birbaliotua
Jakina denez, Hegoaldean ez ezik, Iparraldean ere aurreko belaunaldiak euskaraz mintzatzeagatik irainduak izan dira maiz. «Gure aitazineko belaunaldiak konplexua ukan du euskara mintzatzeagatik, eta pentsatu genuen horretarako beharrezkoa zela irratia. Tresna ikaragarri ona zela, bai euskarari birbalio bat emateko belumaldi horren nahietan, eta baita, beharbada, gazteetan sarrarazteko ere. Gazteengan euska-

Datorren ostiraan jasoko du saria

Pablo Fernin Irigarai Larreko Iruñeko Ospitaleko zuzendaria eta artikulista izandakoaren izena daraman saria jasoko du datorren ostiral arratsaldean, hilak 12, Irulegi Irratiak. Larreko lumarekin euskara kalera atera izan zen moduan, Irulegi esatarietako erlortu dute Nafarroa Beherean gehien entzuten den irratia izatea eta gainera euskara hutsen egindakoa izatea. Larreko saria sortu zela badira lau urte. Orain arte beti Nafarroa Garaiko jendea saritu du beti Euskalerria Irratiak. Gainera, lehendabiziko aldia da eskertzen dela ez pertsona bakarra, baizik eta talde lan bat.

Euskararen aldeko lanean nabar-

mentzen diren goraipatzeak nahiarekin, aldi berean, haiek duten eremateko, oraingoan Irulegi izan da saritua. «Guztiz onela egiten ari direlako. Euskarazko emanez eta gainera hizkuntza zerbait baldin komunikaziorako tresna dela eta irratia ari dira lanean», dio Mikel Irigarai, Euskalerria Irratiak zuzendariak. Irulegi Irratiak zuzendariak azpimarratu du Nafarroa Beherean izan duen hasierarekin. «Ahaleginaren pare dagokuten emaitza. Hau da, egunero 15.000 jenderen harreraketa euskaraz izateko irratia jasoko duen

raren galtzea arazo handia da egun. Beraz, bi xede horiekin sortu zen eta egiten dugu lan egunero», azpimarratu du Pantxoak. Hegoaldean, emeki-emeki bada ere, euskara gora doa; aldi, Iparraldean, ez da horrelakorik gertatzen. Belaunaldien arteko etenaldia egon dako eta helduek euskaraz dakiten moduan, gazte gutxi dira Axularren hizkuntzan mintzo direnak. 1996an Eusko Jaurlaritzak egin dako soziolinguistika inkestak emandako datuak ikusi besterik ez dago gainbehera larriaz oihartzeko. Zaharren artean euskararen erabilera %31koa den bitartean (Euskal Herriko handiena), adinean behera egin ahala datua larriki jaisten da. Hogeita hamalau-hogeita bost urtekoen artean %16 da (EAEkoan bezala) baina 24-16 urtekoen artean %11ra apaltzen da eta hortik behetik %6ra. Aldiz, Hegoaldean gaztekoen artean sumatzen da igoera (%30 EAE eta %12 Nafarroan). Beraz, datuok kezkatzeak dira. «Ez da dudarik jadanik euskara mantentzeko papera pixka bat bete dugula. Euskal irratia izan ez balira, oraino errekaratzen ari den baino lasterrago errekaratuko zen. Irratiak mantendu dute hori. Baina gero ikusten dugu hamar urtetik honat zer diferentzia den. Gazte batzuk doi-doi aritzen dira euskaraz eta ez dute axolarik. Horregatik ezezkorra naiz», azaldu du kezkatu.

Euskara maldan behera badao ere, aldi berean, bada datu pozgarriak, irratia aldeko mugimenduan hainbat dabilzako. Pantxoak dioenez, «egun badira zortzi lagun irratian lanean. Ez guztiak denbora osoz; biga bakarrik denbora osoz eta laguntzaile andana bat. Ehun bat pasa kontatuz herrietako esatariak eta astean behin laguntzen dutenak. Hortan barne dira irratia ondoan sortu den beste elkarte batekoak, Oihartzuna izenekoa».

Halaber, irratia Nafarroa Beherean baduela sona nabarmendu du. «Beti emendatuz joan da»,

nabarmendu du. 1982tik hona denbora ez da alferrik joan eta badira bi elementu, Pantxoaren iritziz, irratia bizkor dabilera erakusten dutenak. «Batetik, alpatuko dugu Sudeko euskal irratietaz egin zuen inkesta bat non erakusten zen Irulegi Irratiak bazuela 21.000-22.000 entzule eta horietatik 12.000ko bat fidelak». Nafarroa Behereak 29.000 biztanle pasatxo dituela aintzat hartuz, bada datu esanguratsua. «Hortik kanpo, badugu beste izartzeko tresna bat», jarraitu du. «Irratien urtean behin egiten dugun kanpaina bat herriz herri eta etxe etxe Behe Nafarroa guztian diru sustengu baten eskatzeko entzuleari». Hamabost egunez irauten duen kanpaina iaz eta aurtentzako die 400.000 liberako (10 milioi pezeta inguru). «Erran nahi baita urteko diru behararen herena betetzen dela. Hor ikusten dugu laguntza inportantea dela eta oihartzun biko duela irratia», gaineratu du kontent irratiko esatariak. Irulegi Irratiaren aurrekontua 1.000.000 liberakoa da (25 milioi pezeta). Urtero Frantziako Gobernuak irratiko komertzialen egiteko laguntza jasotzen du, 200.000 libera inguru. Aurrekontua estaltzen dute Departamenduko Kontseilu Orokorretik eta publizitatetik jasotako arekin.

Egoitza berrea eta kalitatea hobetu nahi

Igandeetan izan ezik, goizeko 6:30etatik gaueko 10:00ak arte emititzen du irratia, FMko 91.8an. Igandetan, berriz, 8:30etatik 19:30ak arte aritzen dira. Irratia oihartzun ona baldin badu ere, «kalitatearen beharra» nabaritu du bertan aritzen den lan taldeak. «Oraino hobetzeko beharra du. Hutsuneak bistan ditugu eta horretarako egiten ditugu ahal bezainbat ikastaro formakuntzan, animazioan eta kazetaritzan mailan».

Formakuntzaren beharraz gain, egoitza berri baten falta ere sumatu dute. «Orain zortzi-bederatzi urte lortutako egoitza ttipiagid gelditzen ari da. Bi estudio, gela bat eta bulegoa ditu eta ez da nahikoa», gaineratu dute. Alokaturia da duteen egoitza eta Donibane-Garazin bertan besteren bat topatzekotan dabilta. Behar handienak toki falta eta langileen kalitatea hobetu nahi baldin badira ere, badute beste premiarik ere. Laguntza ofizialak ziurtatzeaz landa, Nafarroan Beherean barna kokatuak dauden antenekin arazo teknikoak dituzte maiz. «Irulegi Irratia ez da toki batzuetan entzuten. Jadanik eman ditugu bizpahiru lekutan errepikagailu batzuk, gure helburua baita lehen-lehenik Behe Nafarroa osoa



Irulegi Irratiako estudioetako batean lanean dihardu esatariak. LUIS AZANZA

estaltzea. Badugu bat Alduden, bestea Aiherran eta hirugarrena Donapaleuen. Baina, hala ere, badira oraino itzalgunek. Orain daukagu indarra baino gehiago ez digute onartzen eta hemen gune menditsuaz izanez trabak daude. Landesetan oso ongi entzuten gaituzte eta hemendik zenbait herritan gaizki», gaineratu du Pantxoak.

Nolanahi ere, Frantziako beste irratiko komertzialen aldean txinaurriak besterik ez direla oihartzurik, Baionako Gure Irratiarekin eta Mauleko Xiberoko Botzarekin Euskal Irratiak Egitura, hiru irratia bilduko dituen, osatzen ari dira.

Bestalde, Irulegi badu sustengu ekonomikoa lortzeko Oihartzuna taldea. 1991ko hastapenetan sortu zuen irratia inguruan zebilen hainbatek. «Animazioa eta laguntza lortu nahi genuen irratia inguruan, ekintzak egin eta emankizunak antolatuta», dio Iñaki Etxaleku Oihartzuna taldeko kideak. Helburu hori aintzat hartuz, otsailero diru biketa egiteko kanpaina antolatzen dute. Taldean hogeita bost gazte biltzen dira eta Nafarroa Behereko 74 udalerrietatik barna, etxe etxe, jasotzen dute sosa irratia aurrera ateratzeko. Euskarazko Nafarroa Beherean errozetako eginahalean lanean ari badira ere, ez dela nahikoa dio eta gehiago behar luketeela izan. «Gazteak beste elkarte batzuetan sartuak dabilta, ez gara hainbeste baina behar dugu lan egin gero eta errotuagoa dagoen proiektuaren alde», nabarmendu du. Irulegi Irratiak egin duen hamasei urteko ibilbideak eta lanak oihartzuna izan badute ere, oraindik asko omen dute egiteko. «batez ere gazteengan euskara komunikazio tresna bezala berreskuratzen», bukatu du.

→ Irene Arriurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Ixileko olerkari arabar bar gurean: Gamiz Sabandakoaz

«Erderaz eztuzu nay / ene viotza / euzqueraz copla eguiten / eztut nic lotza / yuczco deugu / albadaygu eguin zerbait / nola beardegu. Gaizqui badoaz ere / orra euzqueraz / ifin naiz au eguiten / neure bildurraz / eguizu farre / gaizqui mintzacenbadut / lotzaric bague».



EUSKALGINTZAN APALENA DELA onartzeak ez darama, zergatik ere, gogo gaiztorik berekin. Ontsa baitakigu Ebrotik hurbilean gabiltzanok. Ukatzera ere, ments litzateke, eta desirak desio, non eta nola gauden jakinik, malabarismo frakasak okupentzako uztea hobetsirik gauden. Eta apaltasunean duin, ezin egokiago deritzogu arabarrek berrikian plazaratu ihardespun editoriala, alde askotarik kritikagarria baden ere. Euskara aither guztien itu dutenek, abantzatu pozteko dukete liburuaren salneurria, nehor gutxi erostezala nekez eroan dezakeena, estrategia okerra bestalde, ahalik eta eskuragarrien beharko litzatekenean. Beste maila batean, arriskutsuegi otu zaigu jandantik argitara izan diren testuen berragerpen itsua, batzuk atzo goizekoak ere, nahiz filologari berrientzako bereziki, ezin eskergarriagoa izan Landuccioren hiztegia horren eskuragarri eukitzea, esate baterako. Haatik, horrek ere, erosleen multzoa lar urri dezakeelakoan bagaude. Edozein modutan, arabarrak ez garenontzako esku-liburu balioetsua Knörr-Zuazo bikoteak apallaturiko honakoxea.

Sarrera izan dutenen artean, bigarren mailako egile bat, Gamiz josulaguna, Nafarkaria eskuragarri dugunontzat arras intereseko bederik ere. 1696.eko apirilaren 8an Sabandon sorturik, Juan Bautista Gamiz Ruiz-Oteo josulaguna sartu zitzaigun Camposko Villagarcian 1716. erako. Gaztelako hainbat tokitatik iragan ostean, 1730. urte inguruan Iruñerazi zuten, eta hantxe iraun zuen etxeko ekonomilari Karlos III.ak xedatu kanporaketak Boloniaran eramanez, non Casa-Lequion 1773.eko apirilean hil baitzen. Ez zen apezta Sabandakoa, hortaz, ezinezkoa zuen idazgintzan

ihardun, horregatik bada, isilean burutu zuen bere lana, eta isilean labandu zaigu ia bi mendetan. Bulta honetan ere, Jose Ignazio Aranek eskuizkribua topaturik, Calatayud-eko José Butrón Mujika bati egotzi zion lana, eta 1923.era arte bederen, ez zen Gamizena publiko egin, Joakin Azpiroz Donezteben burutu bigarren euskalegunketako hitzaldietan Sabandakoaren *Dabilcenchoacolerkia* aurkeztu zunean.

Guztiarekin, Gamiz buruzko berri gehienak beranduago etorri zitzaizkigun, berriz ere, josulagunen eskutik: Antonio Pérez Goiena, Ignazio Elizalde eta Ion Goikoetxea Maizarengandik batik bat. Lehenbizikoari esker -'La biblioteca del antiguo colegio de jesuitas de Pamplona', *La Avalancha*, 1929.eko otsailaren 8ko zenbakia-, jakin badakigu Gamiz irakurle amorratua zela, eta bere gelan 208 liburu gutxienez bazuela, nahiz, zehazki, zeintzuk ziren jakin ez. Matematikazalea bezain literaturazalea, Mintzoakoek behiala argitara eman Pedro Agramonten Nafarroako historia bazuen. Bera izan zen bestalde, Kardaberaz zein Mendibururen lanak argitaratzeko inprimatzaileekin harremanetan arizan zena. Elizalde, bere *Navarra en las literaturas románicas* klasikoan, *Gamizek ondu Diario para el aposento del procurador para saber la costumbre que hay regularmente en cuanto a extraordinarias y otras cosas* konsumatu liburua ekarri zigun alpagai. Azturen berritegia, lekaidetxean agitu ohiz kanpoko gertakizunak, hiriko agintariengana zuzentzerako berariazko formu-

lak, Iruñean gertaturiko hainbat pasadizo, zenbait festen deskribapena, eta abarren berri ematekoa zen: «Libro curioso, de valor histórico más que literario, por las noticias que da de diversas personas y pueblos navarros». Ion Goikoetxea izan zen Gamizen lan literarioa argitara eman ziguna ordea: *Ofrecimientos varios de poesía aunque de poco numen que en diferentes ocasiones oportunas e escrito aunque algunas de ellas parece que tienen poca alma*. La olerki gehienak erderaz tajutu zituen: Arabako, Sabandoko, Nafarroako, Iruñeko zein Garesko deskribapenak; Tafallako, Zangoztako, Garesko eta Oteizako ezizenen bildumak; baita hainbat pertsonen eta gertaeren inguruko bertsoak. Alabaina, halako batean, erderazko etorri hau etendu zuen, gertatu zitzaion batek saminki eragin durik. 1748.eko azaroan, Tafallako feriara joateko zela, Jesus bordatu bat ekartzeko eskatu zion Iruñeko neska maingua batek. Honek baietz, eta bat ezean bi Jesus ekarri zizkion honako bertso honekin batera: «...Y si ofreci motolito / embiar un Jesús bonito / quiero salir de congoja / y por q usted escoja / dos Jesuses le remito». Errenak ez zuen ongi hartu hitz hauen azpiko ista, eta Gamizen kontra joaz, Gami-

zek izkiriartzeari betiko uztea erdietsi zuen, erderaz behintzat: «...enfadado del pesar / arrojo tinte-ro y pluma». Harrez geroz, euskaraz baizik ez zuen idatziko, gure pozerako, nahiz arras gutxi izan largatu ziguna, 238 bertso inguru alegia, ezagun dugunaren arabera behintzat.



etorri ahallean

Patziku Perurena

Pomada pitar?

JOAN DEN URTEAN GOI-zuetako udal artxibon aztarka nembilela, 1427 garren urteko apeo batekin egiten nuen topo. Nonbaitean argia erakutsiko ahal diot, zoria nere alderago dabilen egunen batean. Gaur, apeo hartako hitz sorgin batean trabatu zait gogoa:

«Ynterrogados de qué viven (goizuetarrak 1427an, alegia), dixieron que quando Dios los quia que cugen miyo uno con otro pora su provisión de tres meses del aino et non cugen pan ni uno et pora tres pomada et viven sobre sus pocos ganados granados et menudos que han et...»

Zer ote da pomada hori? Edaria duzu, latineko poma (sagarrak) delakotik datorrena, eta ez du deus ikusirik egungo gure pumada edo ongendu esanahiarekin. Hitzaren egitura, badirudi, poma + ada dela, limonada edo laranjada bezalatsu sortua. Baina zehatz mehatz esateko, zer edari klase ote genuen pomada delako hura. Lesakan 1423an jasotako ordenantzak egiten digu argi pittin bat gehixeago:

«que ninguno ni algunos no ayan ni sean osados de tocar a los manzanos salvajes el fruto que tienen ni abrán al tiempo a venir en ningun tiempo a los puercos ni otrament fasta el dia e fiesta de Sta. Maria del mes de agosto, por razón que el dicho fruyto es o sera menester para la gente comuna para fazer pomada o su agoavino que abrán menester».

Pasarte horretatik, badirudi sagar basakaren fruituari deitzen zitzaioela poma, eta pomada berriz, haren fruituarekin egindako sagardoari, baina ez sagardo hutsari, baizik eta ura nahastutako sagar patsari; hala adierazi nahi duela dirudi behintzat agoavino delako horrek.

Izan ere, Lesakan bertako beste dokumentu batean, hain zuzen, 1471 garren urtean herria kizkali ondoren ateratako kontuetan, «sesenta cubas ple-nas de pomada mosto» erre zire-

la esaten baita, eta hortatik atera liteke bi pomada klase horien arteko aldea. Azkeneko honek, bistan da, sagar mustio hutsa adierazi nahi duela, egun sagardo deitzen duguna, eta aurrekoak berriz, pomada agoavino delakoak, sagar patsa urez hornitua, edo guk Urunberrekan pitarra esaten dioguna.

Eta pomada zaharraz izkribu zaharretan erdaraz esaten denaren pare pareko, honatx gure pitarraz Sebastian Salaberriak *Sagardotegiak* liburuan dioskuna:

«Len garai batean, pitarra izaten zan baserritako edaria. Norbaitek galdetu lezake zer izaten dan pitarra. Bada, pitarra izaten da sagarra tolaean jo eta ura bota izan zaio patsari. Pisolarekin zapaltzen dan sagarrari deitzen zaio patsa. Sagardo mustioa egin bear danean, etzaio urik botatzen. Baifia bai pitarra egin bear danean. Eta, ura bota bear danean, ez du neurri jakinik izaten. Sagar urte ona danean, ura gutxiago botatzen zaio. Eta, sagar urte txarra danean, gehiago».

Motikotako egunak ekarri dizkit gogora Sebastianen pasarte horrek. Auzoan Artan-txun, Benaibordan, txarro xahar xuriprintzatu haietatik edandako pitar gaxigarratxak. Edo Aranon, Leontxonbordan, egunero pitarra edanez pasa nituen bi uda osoak. Beroak bota behar eta, egarria ezin asez, pitarretik egiten nuen enpo, barrenak ondatu eta kakeritu arteino. Hantxe, izeba osaben etxean, ikasi nuen nik, kategori-ko sagardoa eta halamoduko pitarra ez zirela gauza bera.

Eta orain, ertaroko izkribu zaharrok leitzekoan, pomada agoavino eta pomada mosto euskal pitarra eta sagardoa izan ote litezken bururatu zait, baina, filologo eminenten horien esku uzten dut nere zalantza; eta baita gure pitar < pittar < pitxar < pitxer < pitxel hitzen erroak pichela ontzi izen grekolatino zaharretik datozenak ote diren argitze lana ere. Eta pattar hitza, Leitzan uxuala, nondik ote dator?

Ziria

• Motxorrosolo •


RPR Beherean, PRI Garaian

ASPALDI ADITUA GENUEN, RPR, GARAZI ALDEAN, KARLISMO MODERNOAREN leguak dituela. Iragan hurbilak erakutsi legeez, mugak denendako du egokiera. Garaian berriz, ukitu berezia dauka. Ezagun batek errana, hemengo PRIrena dirudi, Gobernua eta oposizioa, enpresariak eta langileak, denak bat eginik. Arantzarik ote?

Jose Etxegoien  Historialaria

«Jabetasuna nahiko kontzeptu moderno da»

Aezkoa eta Garaziren arteko fazerien garapen historikoa aztertzen duen ikerketa argitaratu berri du Geronimo de Ustariz institutuaren aldizkarian Jose Etxegoienek. Egileak, fazeriek historian zehar izandako hitzarmenak aztertzeaz gain, bi bailaren arteko gatazkarako bide zirela nabarmendu du. Haren ustez, estatuen sorrerak bi bailaretan mentalitate aldaketa ekarri zuen.



● MIKEL SAIZ

BAZKALONDOKOAK EMATEN duen patxadaz hitz egin du Etxegoien garraldarrak grabagailuaren aurrean. Aezkoako Junte txeko artxibategian erruz ikertu eta gero, oraindik gehiago arakatzeko gogotan gelditu da aetza.

■ Zer da fazeria bat?

Fazeria Erdi Aroan sortutako hitzarmen bat da. XI. eta XII. mendeetan inguruotan eta Euskal Herrian zehar egituratzen hasi zen ibarrez ibar eta administratiboki. Ohikoa zen istiluak sortzea, batik bat mendiko larreetan. Mugak zirela eta, batzuetan artzainen arteko liskarrak sortzen ziren, eta baretzeko normalena zen bitartekariak bildu eta hitzarmena egitea. Hortik sortu ziren fazeriak, mankomunitateak, ponzoneriak; guztiak parekoak dira, gauza bera ez izan arren. Gure artean sortu zen famatuena Erronkariko hiru behien zerga da. Aezkoa eta Garaziren artekoa 1556an egin zen, eta badirudi XVI. mendean Gaztelako konkistarekin beharrezkoa zela hemengo ibarren artean muga zein zen jakitea. Dugun lehendabiziko dokumentazioa 1576koa da, eta garai har-

tan egin ziren zenbait hitzarmen inguruko bailaren artean: Zaraitzu eta Erronkari; Zaraitzu-Garazi; Zaraitzu-Aezkoa. Batik bat Iratin mugak non zeuden zehazteko.

■ Lurraren erabileraren inguruan sortutako liskarrak ekiditeko hitzarmenak zirela aipatu duzu. Oso ohikoak ziren tirabirak?

Jabetasuna nahiko kontzeptu moderno da. Ez zioten garrantzirik ematen lurraren jabetasunari; erabili ahal izateko nahi zuten lurra, eta muga lur hori noraino erabili zitekeen zen. Horregatik liskarrak goiko larreengatik sortzen ziren, han ez zegoelako mugarik. Muga ez zen argia, artzain anitz ibiltzen ziren, eta liskarrak sortzea nahiko arrunta zen. Hasieran guztiendako bazen lekua baina gero ibar batzuetan jende gehiago sortzen hasi zen. Hegoaldean Aezkoa, Zaraitzu eta Erroibar demografikoki mantendu dira, baina bertaldez Baigorri eta Garazin biztanleak nahiko igo dira. Fazeria egin zenean biztanleria nahiko parekatua zegoenez, hitzarmenean ez zen baldintza

handirik ezarri. Baina XVIII. mendean ikusten da desoreka nahikoa dela. Garaztarrek egiten zituzten gero eta borda gehiago eta azienda gehiago zuten. Horregatik hasi ziren igotzen bordak eta muga eraikitzen. Horrek sortu zituen lehendabiziko liskar gogorrak XIX. mendean. Azkenik, afera orekatzeko garaztarrek dirua eman behar izan zuten ganadu gehiegi zutelako.

■ Bi estatuen agerpenarekin fazerien papera aldatu zen?

Bai. Lehendabiziko saialdia Konbentzione Gerran izan zen. 1793-95 artean. Hor sortu zen ofizialki frantzes nazionalismoa eta arazoak sortzean erabaki zuten hangoek eta hemengoek muga bat egin behar zutela. Hasi ziren markaketa egiten eta Napoleonen gerrak zirela eta bertan behera gelditu zen. Haiendako oso urruti zen eta nahi zuten muga paperetan. Etorri hona, mendiak ikusi eta erabaki zuten mendiko kaskoak zirela muga. Adibidez Erronkariri zati handi bat kendu zioten, Zaraitzuri beste bat, Aezkoari kendu nahi zioten baina utzi zioten. Arazo nagusia Aldudeko muga zen, eta oraindik ere esaten da gaizki egina dagoela. Haienzako trukaketa zen: nik ematen dizut zati bat eta zuk beste bat. Arazoren bat sortzen zenean Ibarreko Juntara jotzen zuten. Larria zenean Iruñera edo Mauleira, baina Napoleonen gerrak pasatuta Madrildik eta Paristik etortzen ziren gauzak konpontzera. Orduan hasi zen izaten estatu

Jose Etxegoien Donostian jaiotako du, eta duela hamar urte bertan bizi da, Xamarrenean etxean. Donostian eta Gasteizen Historia ikasketak eginak ditu, baina Nafarroako Pirinio Partzuergoko idazkaria da. Beraz, ikasketak ofizio baino gehiago afizio ditu eta gauetan, lanetik atera eta gero, aritzen da artxibategietan bildutakoak ikertzen.

Nafarroako Pirinioetan lan egitea zaila dela badakien arren, gustuko du egiten duena. «Kanpokoa bazara, zaila da mendialdean lan egitea», nabaritu du. Aurki, eskualdeko zerbitzu gida elebiduna eta Zuberoarekin batera egindako mapa argitaratuko dituzte.

Garraldako artxibategia arakatu XIX. mendeko historiari buruzko hainbat datu jaso ditu. Artxibategia 1754an erre egin zen, Konbentzione Gerran, eta agiri gehienak, fazerienak izan ezik, ondorengoak dira. Kaleratu berri dioten lana hasiera besterik ez dela dio, eta asko dagoela ikertzeko. Egun, Pirinioetako trasumantzia ikertzen ari da eta Orbaiztako olari buruz ere badu datu franko jaso. «Hemengo historia oso aberatsa da baina gutxi ikertua», azpimarratu du.

mailako afera. Bi izan ezik (Hiru Behien zerga eta Aezkoa eta Garaziren artekoa) 1856an, muga trazaketan, erabaki zen fazeria guztiak kentzea, arazo asko sortzen zirelako.

■ Zergatik utzi ziren bi horiek?

Zaharrenak zirelako eta ibarrek horrela eskatuta. Aezkoarentzat diru iturri da, batik bat. Fazeriaren hiru laurdenak Aezkoan daude eta beste laurdena Garazin. Orduan haien ardi saldoak eta beheiak honat etortzen ziren eta hemengoak hara eramaten. Joan den mendean erabaki zen diru bat ordaintzea, eta gehiena Garazik ordaintzen du ganadu gehiago duelako. Gaur egun sei-zazpi milioi pezeta ordaintzen ditu (280.000 libera) eta Aezkoak mi-

lio pezetan inguru. Garazitik normalean ardi saldoak ekartzen dituzte eta hemendik behiak eta zaldiak.

■ Egun egoera asko aldatu da?

Bai, hemengo azienda dexente jaitsi delako. Horregatik ordaintzen du askoz gehiago Garazik ardi saldo asko dutelako. Hemen, aldiz, ardi saldoak kasik desagertu dira eta handitu da behien saldoa. Mantenduko da Aezkoarendako diru iturria delako. Gainera, ona da larreak mantentzen direlako, ardirik gabe larrea galtzen baita. Aezkoak 4.500 hektarea ditu eta Garazik 1.700 hektarea. Aezkoako lurren laurdena litzateke fazeria.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Zuri dagoen liburua

Amen batean iritsi naiz kronikaren akaberarako lerroa, penaz Olasagarrek moldatutako segidarik ez dutelako. Arbizuarrak paperera aldatutako gertaera latzek, bizipen zuzenek, kontaera erakargarriek, elkarriketa biziek, pertsonaia zuribeltz-nabarrek harat-honat eraman naute Hego Afrikan barrena, arin, zauli, neka gabe. Huraxe bai korapiltoa eta bazter nahasia, inon izatekotan, eta gauza izan dira behintzat, nola edo hala, afera gorri hori hizketaren bitartez bideratzeko. Diotenez, irlandarrentzat nahiz britainiarrentzat ikasbide gertatu zen hegoko mutur hartan ibilitako bidea. Guk, ordea, ez omen dugu zer ikastekorik Irlandatik, den-dena arras ezberdina baita. Eta hala izatera ere, berdin lioke, hala beheitiko afrikarrek nola goitiko europarrek mataza odoltsua askatzeko bidea landu eta erakutsi baitigute, eta bidea bat bakarra da, hots, mahaia eta elkarren arteko hizketa, agerikoa edo ixilekoa. Bertzenaz, honek ez du konponbiderik izanen. Auskalo nor ari ote den hariak ibilazten, baina herioaren eta sofrimenduaren pendulua alde batean zein bertzean gogor ari da jotzen. Mugimendu hori gelditzea, horixe da jende gehienaren nahia, baina berez ez dirudi geldituko denik, geldiarazi beharra dago, eta horretarako ahalik eta jende gehien bildu beharra dago hizketaren mahaiaren alde. Batzuek diote Orejaren azioak higatzen hasiak direla, baina oraindik zutik dirauela eta «jo» egin behar dela. Dena den, hemen «zartakoak» delegazioz jotzen dira, eta kolpatua gizarte izaten da gehienetan, eta ondorioz txarrenak, berriz, euskal gizarteak irentsi behar izaten ditu. Hiru urratsotan datza, hiru urratsotan datzanez, erronka nagusia: elkarriketa, hitzarmena eta hiritarren borondateari men egitea, eta bertzeen irizkiak entzuten jakitea, hori ere bai. Beraz, inoiz aukera emanen ote zaio nik dakita zein idazle atzerritarri hemengo «bakebideaz» izkribatzeko?

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Burlata:** Gaupasa izanen da gaur Joselu Anaiak taldearekin, 20:00etan, Axular elkarrean.
- **Iruñea:** Arrosadiako Manuel de Falla plazan kontzertua eskainiko dute Idi bihotz, Kashbad eta Mundiñano anaiek gaur, 22:00etan.
- **Alzoain:** Sergio Makaroffek kontzertua eskainiko du gaur, 23:00etan, Artsaian. Sarrerak 800 pezeta balio du.
- **Iruñea:** Lorelei taldeak Terminal tabernan joko du datorren ostegunean, arratseko 21:30etan.

ANTZERKIA

- **Leliza:** Gilkitxaro taldeak *Infernuko atean* lana antzetzuko du plazan, bihar, 20:00etan.
- **Zizur Nagusia:** Iluna taldeak *Fuera de quicio* lana taularatu du gaur, 22:00etan, Kultur Etxean. Bihar, berriz, Xahutondo taldearen txanda izanen da. *Dios* lana antzetzuko du toki berean 20:00etan.

BESTELAKOAK

- **Burlata:** Aurtengo jaietako kartel lehiaketarako deialdia zabaldu du Udalak. Partehartzaileak hiru taldetan banatzen dira: 11 urtetik 14ra bitartekoak; 15 urtetik 18rakoak eta 18 urtetik gorakoak. Partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake eta zurezko txapetan egokitua. Lanak Kultur eta Jaietarako Udal Patrotoanotora igorri behar dira uzatailaren 1a baino lehen. Informazio gehiago nahi duenak jo dezala Udalera.
- **Iruñea:** Etzi Bardeetako Tiro Poligonoaren aurkako ibilaldia egingen da. Hori dela eta, Dortoka nagia taldeak txi-

rrindula martxa antolatu du Bardeetara. Martxa gaur aterako da Gaztelu Plazatik 17:00etan. Pitillaseko aintzirara joan eta Beireko aterpean igaroko dute gaua. Larunbatean Erriberrira joanen dira autobusez eta ondoren txirrundulaz Bardeetara abiatuko dira. Informazio gehiago edo izena eman nahi duenak

dei dezala 948-21-05-30 telefonora.

► **Bertiz:** Merkataritza eta ostalaritza lan poltsa zabaldu Bertizko Partzuergoak udako. Lan poltsak eskualdeko pertsonak bilduko ditu. Informazioa eskatzeko eta izena emateko, 948-59-23-23 telefonora deitu.

► **Iruñea:** Andreak datorren aste-

bururako (ekainak 13 eta 14) Iزابara eta Belaguara bidaiak antolatu du bakarrik dauden emakumeentzako edo haurrek dituztenentzako. Bidaiak, otorduak barne, 2.000 pezetakoa da, eta haurrengatik beste 1.000 pezeta ordainduko dira. Informazioa eta izen ematea 13-33-1 edo 13-35-51 telefonoetan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

NORA DOAZ JAINKOEN MALKOAK, ESKOZIAREN GAINEAN IXURITAKOAK? WHISKY BOTILETARA.

ETA GIZON-EMAKOMEENAK NORA OTE? ERREKARA.

